



ARALARKO PARKE NATURALEKO 2020ko KUDEAKETA MEMORIA

1. SARRERA ETA HELBURUAK

Eusko Jaurlaritzak, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eskariz, Aralarko Baliabide Naturalen Antolamenduko Plana onartu zuen, 168/1994 Dekretuaren bidez, eta aldi berean Aralar aldea parke naturalizat jotzen duen 169/1994 Dekretua onartu zuen.

Deklarazio honen helburuak hauek dira:

- Parkearen eremuan dauden ekosistemak babestu, artatu eta lehengo egoerara itzularaztea
- aldeko gizarte eta ekonomi alderdiak sustatzea
- nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza jarduera tradizionalak suspertzea
- natur balioen ezagutza eta gozamen erazkoa suspertzea
- ikerketa zientifikoa suspertzea

Bestalde, Aralarko Parke Naturala Kontserbazio Bereziko Eremua izendatu zen 84/2016 Dekretuan, Batasunaren intereseko habitat naturalaren eta espezieen berezitasunen araberako betekizun ekologikoak kontuan hartuta, behar bezala kontserbatzeko neurri egokiak ezartzeko.

Memoria hau 2020an Parke Naturalean egindako jarduketei buruzkoa da eta arlo desberdinak kudeatzen dituzten arduradunak emandako informazioarekin egina dago.

2. JARDUKETAK

2.1. Erabilera publikoa

2.1.1. Parketxea

GPS Fundazioak kudeatzen du parketxe edatua (Lizarrusti eta Barandiaran museoa), *Artelatz ingurumen zerbitzuak* enpresaren bitartez. Natur balioen eta euskal kulturaren ezagutza zabaltzeko ardura du.

Bisitariak hezkuntza formalekoak eta antolatzen diren jarduerako taldekoak dira.

Kontuan hartuta, Covid-19 pandemia dela eta, aisia eta kultura jarduerak izan dituzten murrizketak, bai eraikinen barrualdean, bai kanpoko ekintzetan, honako hauek dira 2020ko datuak:

- Informazio eskatu dutenak: 178
 - Bisita egiteko sarrera ordaindu dutenak: 358
 - Ingurumen heziketa (ikastetxeak): 387
 - Txangoak: 34
 - Ekintza bereziak (kanpoko adituekin): 587
- Guztira: 1.526 bisitari.

2.1.2. Azpiegiturak zaindu eta hobetzeko lanak

Atsedenlekuak eta ibilbide sarea (seinaleztapena eta mantentze lanak) Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko zerbitzuak egiten ditu.



2.2. Basoak

Parkean dauden eta Onura Publikoko diren mendiak, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko zerbitzuak kudeatzen ditu. Aurten hurrengo lan hauek egin dira:

- Ataungo Aitzarte mendian, udako garbiketak 15 ha-tan
- Abaltzisketako Egido mendian, Batasunaren intereseko fauna, flora eta habitaten azterketa

2.3. Larreak

2.3.1. Larreak zaintzea

Abaltzisketako, Amezketako eta Zaldibiko Herri Onurako mendietan garo xehaketak egin dira, eskuz eta makinaz.

2.4. Basa animaliak eta landareak

2.4.1. Animalia eta landare babestuak

Babestuta dauden muturluze piriniarra, bisoi europarra eta harkaitzetako hegaztiei (sai zuria, sai arrea, belatza...) jarraipenak egiten zaizkie. Eta baita parkean dagoen eta katalogatuta dauden landare espeziei ere.

Neguan, ugatzarentzat (*Gypaetus barbatus*) elikadura-puntu osagarria egon da martxan, beti ere espezie honen pirinear populazioan mendebalderago dagoen territoria mantentze aldera.

Beaskingo hezeguneko itxitura aztertu da eta Gastezuiko hezegunean *Cladium mariscus* formazioa errebisatu egin da. Oreka Mendian Life ekimenetik eskuragarri izan ditzakegun funtsen arabera ekin ahalko diogu Beaskingo itxitura berria eraikitzeari. Gastezuikoan, aldiz, hezegunearen egungo bilakaera beste urte betez jarraituko dugu bideragarritasunaren aldetik ditugun zalantzak argitzeko.

Menyanthes trifoliata-ren Nafarroako populazioaren bila aritu gara Unako putzuaren inguruan. Ez dugu lorerik aurkitu putzuan bertan baina inguruko errekatari geroago, berandu bada ere, ikusi dugu landarea. Ezinezkoa izan da, beraz, haren haziak lortzea; datorren urterako Nafarroako Gobernuak kideekin batera heldu nahiko genioke jatorri honetako hirusta aurkitu eta ugaltzeari. Egun, Aizkorrikoaren ale ugari sortu ditugun arren, Aralarren bertako jatorria duenarekin egin nahiko genuke lan, horrenbeste urtez isolatutak bizi izan diren populazio bien dibertsitate genetikoa kontserbatu asmoz.

Aurreko urtetako landare katalogatuen jarraipen eta hazi bilketa lanak ere burutu ditugu baina goizegi da haiengatik jasotako emaitzak jakinareazteko.

2.4.2. Ehiza

2019-2020 denboraldian egindako ehiza larriko 86 uxaldietan 121 basurde (213 ikusita) eta 15 orkatz (76 ikusita) harrapatu dira.

2.4.3. Espezie inbaditzaileak

Erreparasatu egin dira aurreko urtean landutako gunek.

- *Buddleja davidii*. Zaldibitik Larraitzako igoerakoa ez da aurten azaldu, iazko tratamenduarekin erabat desagertzea lortu da.
- *Fallopia japonica*. Zaldibitik Larraitzako igoerakoa ia indarge dago eta berriz tratatu da. Lareokoak eskuz kentzen jarraitu dugu. Ataungo Kaxetatik Aiarako igoeran dagoen fokoa iazkoaren %20 jaitsi dugu eta berriz tratatu dugu. Amezketako betelanean agerikoa da iaztik eman den presentzia murrizketa. Aurten, bertan bazkaten duten ardiak artzainak berak tratatu ditu.
- *Ailanthus altissima*. Kaxetako fokoan, zuhaitz handiak ez dute kimurik bota. Bide ertzean azaltzen diren bakarrekin jarraitu dugu.



2.5. Kultur ondarea

2019 arte Jose Antonio Mugikak zuzendutako Aralarko paisaiaren bilakaera eta populazioaren dinamikaren inguruko ikerketa dela eta, miaketa-zuloak eta zundaketak egin zituzten, Mendietako eta Natura Ingurunekeo Zuzendaritzatik diruz lagunduta. Aurten ez da diru-laguntzarik bideratu proiektu horretarako.

2.6. Proiektuak

LIFE Baccata

“*Taxus baccata*-ko baso mediterraneoak” habitata kontserbatu eta bultzatzea helburu duen proiektu hau kantaurlar mendikatean dauden Natura 2000ko eremu batzuetan garatzen ari da, horien artean Aralar.

Aurreko urteetan hainbat ekintza egin dira eta aurten ere hurrengo lanak burutu dira:

- Akaitz-txiki, Malkorburu eta Auza-Gaztelun itxiturak jarri eta egokitu
- Malkorburun eta Sarastarrin haginak argian jarri, inguruko zuhaitzak kenduz
- Baso bideak garbitu eta konpondu
- Hagin landaketak Ataburu eta Goroskintxun

LIFE Oreka mendian

Proiektu honi lotuta, aurten Ataungo Marumendi mendian xehaketak egin dira.

3. AURREKONTU EKONOMIKOAREN BALANTZEA

LARREAK:

- Abaltzisketako Egido mendian garo xehaketa arina, eskuz 5.566,00 €
- Amezketako mendian garo xehaketa 5.566,00 €
- Zaldibiko Igirua mendian xehaketak eskuz 4.554,00 €
- Ataungo Marumendi mendian xehaketa arinak makinaz 8.899,00 €

BASOAK:

- LIFE baccata 12.851,00 €
- Ataungo Aitzarte mendian, udako garbiketak 15 ha-tan 9.000,00 €

ERABILERA PUBLIKOA:

PARKETXEA:

- Artapena eta dinamizazioa 38.015,00 €

IBILBIDEAK:

- Lizarrustiko atsedenekuen mantentze eta konponketa lanak 4.108,00 €
- Parke sarreretan seinalitika jarri 4.749,13 €
- Kontagailuen lekuz aldaketa eta irakurketa 2.343,75 €
- Epaibide eta Altxonbide ibilbideen berrikuspena 1.000,00 €

IKERKETAK

- Batasunaren intereseko fauna, flora eta habitaten azterketa 17.200,00 €



4. ADIERAZLEAK

4.1. Inbertsio bolumena

ARALARKO PARKE NATURALEAN EGINDAKO INBERTSIO TOTALA: 186.321 €

Abeltzaintza suspertzea: 24.585 €

Basogintza suspertzea: 21.851 €

Erabilera publikoa suspertzea: 51.058 €

Natur balioen ezagutza suspertzea: 71.627 €

Ikerketa zientifikoa suspertzea: 17.200 €

4.2. Bisitari kopurua

4.2.1 Ibilbideak

Hiru kontagailu daude jarrita Aralarko Parkean. Aurten hiru horietatik bi, lekuz aldatu dira. Lareoko bidean zegoena PR-2001 (Lizarrusti-Aia) ibilbidean jarri da eta Txindokiko bidean zegoena berriz, Arritzagako GR-121 oinezko ibilbidean.

Kontagailu desberdinetatik pasa diren pertsona kopurua 2020 urtean, hauek izan dira:

- Abaltzisketako bide irisgarria: 48.905
- Txindokiko igoyerako bidean, martxo arte: 9.391
- Arritzagako bidean, martxotik aurrera: 939
- Lareoko bidean, ekaina arte: 9.148
- Aia-Lizarrustiko bidean, ekainetik aurrera: 230

4.6. Patronatuaren bilerak

Azkena 2018ko maiatzaren 18an.

4.7. Langileak

- Foru Aldundiko sei teknikari, jardunaldiaren zati batean Parkeko eremu eta arlo desberdinak kudeatzen dituztenak.
- Foru Aldundiko zazpi basozain, zaintzen dituzten eremuen zati bat Aralarko Parke Naturalean dutenak eta Mankomunitateko basozain bat.